AGINTARIAK ETA LANGILERIA

Izendapenak, egoerak eta gorabeherak

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURA SAILA

3834

AGINDUA, 2015eko irailaren 3koa, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako sailburuarena, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketako sailburuaren 2009ko abenduaren 10eko, 2010eko abenduaren 17ko eta 2012ko otsailaren 10eko Aginduen bidez deitutako hautaketa-prozesuetan hautatutako izangaiak Euskal Autonomia Erkidegoko Maisu-maistren eta Bigarren Hezkuntzako kidegoetako karrerako funtzionario izendatzen dituena.

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako sailburuaren 2014ko abuztuaren 28ko Aginduaren bidez, Euskal Autonomia Erkidegoko Maisu-maistren eta Bigarren Hezkuntzako irakasleen kidegoetako praktiketako funtzionario izendatu ziren hainbat hautaketa-prozesuetan hautatutako izangaiak; hain zuzen ere, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketako sailburuaren 2009ko abenduaren 10eko, 2010eko abenduaren 17ko eta 2012ko otsailaren 10eko Aginduen bidez deitutako hautaketa-prozesuetan.

Praktikak amaitu dira; beraz, karrerako funtzionario izendatzeari ekin zaie, bai praktikak gainditu dituzten hautatutako izangaiei, bai horien ebaluazioaz salbuetsita daudenei. Praktikak 2014-2015 ikasturtean egin ziren.

Horren ondorioz, hau

XEDATZEN DUT:

Lehenengoa.– Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketako sailburuaren 2009ko abenduaren 10eko Aginduaren bidez deitutako hautaketa-prozesuan hautatutako izangaia Euskal Autonomia Erkidegoko Bigarren Hezkuntzako Irakasleen kidegoko karrerako funtzionario izendatzea, erabaki judiziala betetzearen ondorioz. Gutxienez ikasturte batean zehar karrerako irakasle funtzionario gisa zerbitzuak eman zituenez, praktika-aldiaren ebaluazioaz salbuetsita egon zen. I. eranskinean zerrendatzen da.

Bigarrena.– Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketako sailburuaren 2010eko abenduaren 17ko Aginduaren bidez deitutako hautaketa-prozesuan hautatutako izangaia Euskal Autonomia Erkidegoko Maisu-maistren kidegoko karrerako funtzionario izendatzea, erabaki judiziala betetzearen ondorioz. 2014-2015 ikasturtean praktikak bete eta gainditu ditu. II. eranskinean zerrendatzen da.

Hirugarrena.– Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketako sailburuaren 2012ko otsailaren 10eko Aginduaren bidez deitutako hautaketa-prozesuan hautatutako izangaiak Euskal Autonomia Erkidegoko Bigarren Hezkuntzako Irakasleen kidegoko karrerako funtzionario izendatzea, erabaki judiziala betetzearen ondorioz. 2014-2015 ikasturtean praktikak bete eta gainditu dituzte. III. eranskinean zerrendatzen dira.

Laugarrena.– Agindu honen bidez izendatutako izangaia eta I. eranskinean zerrendatzen dena, karrerako funtzionariotzat joko da, 2011ko irailaren 1etik aurrera.

Bosgarrena.– Agindu honen bidez izendatutako izangaia eta II. eranskinean zerrendatzen dena, karrerako funtzionariotzat joko da, 2012ko irailaren 1etik aurrera.

Seigarrena.– Agindu honen bidez izendatutako izangaiak eta III. eranskinean zerrendatzen direnak, karrerako funtzionariotzat joko dira, 2013ko irailaren 1etik aurrera.

Zazpigarrena.– Agindu honen bidez izendatutako langilea jada Administrazioko beste Kidego bateko funtzionarioa baldin bada, bietako batean sartzea aukeratu beharko du, Administrazio Publikoen Zerbitzuko Langileen Bateraezintasunei buruzko abenduaren 26ko 53/1984 Legearen 10. artikuluan xedatutakoari jarraituz.

AZKEN XEDAPENA

Agindu honek administrazio-bidea agortzen du, eta, bere aurka, aukerako berraztertzeko errekurtsoa aurkeztu ahal izango zaio Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako sailburuari, agindua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunean hasita hilabeteko epean; bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkeztu ahal izango dute Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzietako Salaren aurrean, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunaren biharamunetik aurrera bi hilabeteko epean.

Vitoria-Gasteiz, 2015eko irailaren 3a.

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako sailburua,
CRISTINA URIARTE TOLEDO.

I. ERANSKINA

Kidegoa: **Bigarren Hezkuntzako Irakasleak**
Espezialitatea: **Sistema elektroteknikoak eta automatikoak**
Txanda: **Librea**

NAN	IZEN DEITURAK			LEZ
30613330	García	Sánchez	Carlos	30613330 68A2410

II. ERANSKINA

Kidegoa: **Maisu-maistrak**
Espezialitatea: **Hezkuntza Berezia. Pedagogia Terapeutikoa**
Txanda: **Librea**

NAN	IZEN DEITURAK			LEZ
78910921	Miguel	Casanovas	María Carmen	78910921 57A2409

III. ERANSKINA

Kidegoa: **Bigarren Hezkuntzako Irakasleak**
Espezialitatea: **Biologia eta Geologia**
Txanda: **Librea**

NAN	IZEN DEITURAK			LEZ
30633820	Atxikallende	Arriaga	Amaia	30633820 02A2410
22718714	González	Gallo	María Teresa	22718714 46A2410
15956046	Gómez	Zapiain	M.ª Karmele	15956046 13A2410
11931520	Soriano	Ruiz	Jose Antonio	11931520 68A2410

Kidegoa: **Bigarren Hezkuntzako Irakasleak**
Espezialitatea: **Euskara eta Literatura**
Txanda: **Librea**

NAN	IZEN DEITURAK			LEZ
30621156	Gangoiti	Uriarte	Pilar	30621156 68A2410
15990005	Bengoetxea	Izeta	M.ª Concepción	15990005 35A2410

Kidegoa: **Bigarren Hezkuntzako Irakasleak**
Espezialitatea: **Ostalaritza eta Turismoa**
Txanda: **Librea**

NAN	IZEN DEITURAK			LEZ
72457774	Arrospide	Baena	Ruben	72457774 46A2410